



Sestaoko Udala

2026-2027 ikasturtean eskola-jangelara joan eta testuliburuak nahiz eskola-material suntsigarria eroste aldera Sestao udalerrian erroldatu eta bertako ikastetxeetan matrikulatutako ikasleei Sestaoko Udalak laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren laburpena.

Sestaoko Udaleko 2026ko uztailaren 16ko Alkate-Udalburuaren Dekretuaren bitartez onetsi da deialdia Sestaoko Udalak Sestao udalerrian erroldatu eta bertako ikastetxeetan matrikulatutako ikasleei laguntza ekonomikoak emateko 2026-2027 ikasturtean, batetik, eskola-jangelara joan daitezen eta, bestetik, testuliburuak eta eskola-material suntsigarria eros ditzaten.

Deialdian xedatutakoarekin bat etorritik, laguntza ekonomikoak lortze aldera eskaerak aurkezteko epe balioduna laguntzen deialdiaren laburpen hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidetik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, 2026ko irailaren 23ra arte.

Laguntza ekonomiko hauen oinarri arautzaileak Sestaoko Udaleko 2023ko maiatzaren 26ko Alkate-Udalburuaren Dekretuaren bitartez onetsi eta 2023ko ekainaren 6ko 110. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Hala, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan eta Sestaoko Udaleko webgunean (www.sestao.eus) kontsultatu ahalko dira laguntza hauen deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Lehenengoa.- Helburua eta xedea.

Oinarri hauen xedea da Sestaoko Udalak laguntza ekonomikoak ematea 2026-2027 ikasturtean Sestao udalerrian erroldatutako ikasleak eskola-jangelara joateko eta eskola-materiala erosteko, baldin eta oinarri arautzaile hauetan zehazten diren irakaskuntza arautuaren mailatan Sestaoko ikastetxeetan matrikulatuta badaude.

Oinarri hauetan araututako laguntza ekonomikoekin lortu nahi da Sestao udalerrian erroldatuta dauden adingabeak Sestaoko ikastetxeetan eskola daitezen sustatzea, nahiz eta bitarteko ekonomiko urriak dituzten bizikidetza-unitateetako kide izan. Horrenbestez, eskola-jangelara joateak eta eskola-material erosteak suposatzen dituzten kostu ekonomikoetan lagunduko da.

Bigarrena.- Pertsona onuradunak.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izateko, oinarri arauemaileetan aurrez ikusitako gainerako baldintzez gain, interesdunek laguntza emateko eskaera aurkeztean, hurrengo eskakizun hauek bete beharko dituzte:

1.- Sestao udalerrian erroldatuta egotea.

2.- Sestaoko ikastetxe ofizialean matrikulatuta egotea, ondorengo maila hauetako batean:

- Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko 2 urteko ikasgela.
- Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa.
- Lehen Hezkuntza.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak.

3.- Bizikidetza-unitateko kide izatea, baldin eta hileko etekin ekonomikoak ez badira honako zenbatekoetatik gorakoak:

-Bi pertsonak osatutako bizikidetza-unitateak: bi kideko (adin nagusiko bat eta adingabeko bat) bizikidetza-unitatearen gehieneko errenta bermatuaren % 140ko zenbatekoa hilean, gehieneko errenta bermatua kalkulatzeko bizikidetza-unitatearen ezaugarriekin lotutako osagarriak.



**Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)**

-Hiru pertsonen osatutako bizikidetza-unitateak: hiru kideko (bi adin nagusiko eta adingabeko bat) bizikidetza-unitatearen gehieneko errenta bermatuaren % 120ko zenbatekoa hilean, gehieneko errenta bermatua kalkulatzean bizikidetza-unitatearen ezaugarriekin lotutako osagarriak.

-Lau edo pertsona gehiagok osatutako bizikidetza-unitateak: lau kideko (bi adin nagusiko eta bi adingabeko) bizikidetza-unitatearen gehieneko errenta bermatuaren % 110eko zenbatekoa hilean, gehieneko errenta bermatua kalkulatzean bizikidetza-unitatearen ezaugarriekin lotutako osagarriak.

4.- Bizikidetza-unitate bateko kide izatea, baldin eta ondarearen balioa gehieneko errenta bermatuaren urteko zenbatekoa baino bi aldiz gehiago ez bada bi kideko (adin nagusiko bat eta adingabe bat) unitate baterako, gehieneko errenta bermatua kalkulatzean bizikidetza-unitatearen ezaugarriekin lotutako osagarriak.

Gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoak, bizikidetza-unitatearen osaera, etekin ekonomiko konputagarriak eta ondarearen balioa adierazitako baldintzetan zehazteko, Eusko Legebiltzarraren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak aurrez ikusitakoa aplikatuko da. Horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema arautzen da.

Hirugarrena.- Kreditua.

Deialdi honen esparruan emandako laguntza ekonomikoak 2026. urteko Udaleko udal-aurrekontuan "eskola-bekak" 3260.480.01 modura izendatutako aurrekontu-partidaren kargura emango dira, eta 100.000 euroko kreditua du esleitura.

Laugarrena.- Eskerak aurkezteko epea.

Eskerak aurkezteko epea laguntzei buruzko deialdiaren laburpen hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidetik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2026ko irailaren 23an amaitzeko.

Bosgarrena.- Eskerak aurkezteko tokia.

Eskerak honako modu honetan aurkeztuko dira.

-Interesdunaren gurasoak/tutoreak/ordezkariek laguntza-eskaera bat aurkeztu ahalko du Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikoa, Sestaoko Udaleko Erregistro Orokorrean (udaletxean, Sestaoko Kasko plazako zenbaki gabea, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 1 Legearen 16.4 artikuluan aurrez ikusitako aurkezpen-bitartekoak gorabehera) edo Sestaoko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erreferentziazko gizarte-langileari, interesdunak xede horretarako hitzartutako aurrez aurreko elkarriketan.

Sestaon, sinadura digitalaren datan.
SESTAOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA
Stua.: Gorka Álvarez Martínez